

OLATU TALKA 2019: KONTZERTOUR

Aurkezpena

Kontzertour, Olatu Talka jaialdiaren baitan, musika talde edo bakarlariei zuzendutako zirkuitua da. Kontzertourrek musikariak eta publikoa gerturatzea du helburu, hiria musikaz gainezka jarriz eta giro paregabea sortuz.

Datak

2019ko, maiatzaren 31an, eta ekainaren 1ean eta 2an.

Parte-hartzaileak

- Hirian kokatutako eszenatoki batean eta azpiegitura profesional baten laguntzaz euren musika partekatu nahi duten talde edo bakarlariak
- Edozein musika estilo onartuko da Kontzertourren.
- Izen-emateak www.olatutalka.eus webguneko formularioaren bitartez soilik egin ahal izango dira, 2019ko urtarrilaren 31ra arte.

Baldintzak eta kudeaketa

- Kontzertu bakoitzak 45 minutu inguruko iraupena izango du.
- Salbuespenak salbu, emanaldiak 2 edo 3 kontzertuetako blokeetan antolatuko dira, soinu probak bloke bakoitzaren aurretik egingo direlarik. Soinu proba eta kontzertuetarako hitzorduak alde aurretik adostuko dira hautatutako taldeekin.
- Antolakuntzak bloke bakoitzeko taldeek erabiliko duen ekipoaren oinarrizko zenbait elementuren partekatzea bideratzen saiatuko da, taldeen arteko aldaketa ahalik eta azkarren egiteko (anplifikadoreak, bateria elementu finkoak, teklatura, eta abar). Elementu hauen partekatzea ezinezkoa denean, edo taldeekin adostasunera iristen ez denean, antolakuntzak oinarrizko *backlinea* jarriko du.
- Antolakuntzak parte hartuko duten taldeetako partaide guztiak Gizarte Segurantzaren altan emango ditu eta honen kudeaketari lotutako gastu guztiak bere gain hartuko ditu. Baldintza hau derrigorrezkoa izanik, altan eman ezin direnak edo ematea nahi ez dutenek ezingo dute Kontzertourren parte hartu.
- Bandek musikari kopuruaren arabera saria jasoko dute:

Bakarlaria	80 €
2 musikari	70 € bakoitzeko
3 musikari	60 € bakoitzeko
4 musikari edo gehiago	50 € bakoitzeko

Hautaketa

- Kontzertourren 25 kontzertu aurreikusi dira. Izen-emateak 25 baino gehiago izango balira, antolakuntzak taldeak aukeratuko lituzke Olatu Talkaren izaera eta helburuekin bat egin eta programaren baitan enkaje hobea duten proposamenak, 2018ko edizioan parte hartu ez dutenei lehentasuna emanaz.
- Prozesua amaitutakoan, izena eman duten guztiei jakinaraziko zaie hautatuak izan diren ala ez, telefonoz edo posta elektronikoko bitartez, 2019ko apirila baino lehen.